

CIC nanoGUNEk eta Donostia International Physics Centerrek (DIPC) erronka bat proposatu dute komikiaren eta zientziaren alorrean, 1) 14 eta 18 arteko gazteei zuzendua eta 2) 18 urtetik gorako pertsoneri zuzendua. Bi zentzuek Zientzia eta Teknologiarako Espainiako Fundazioaren (FECYT) finantzazioarekin 2017an antolatuko duten nanoKOMIK proiektuan kokatuta dago erronka, eta bere helburua istorio originalak eta ideia berritzaileak sortzea da eta, aurrerago, horiek **nanofikziozko komiki partehartzaile batean** birsortzea.

NOLA SORTU ZURE NANOKOMIKIA

Erronka "**nanobeteredun**" superheroi bati buruzko istorio grafikoa sortzean datza, hau da, nanozientzia eta nanoteknologiari esker gaitasun eta trebetasun sofistikatuak bereganatzen dituen pertsonaia. Horretarako, bi gauza baino ez dira jakin behar:

- **Nanoboterea nola sortu:** Pertsonaiaren indarra edo gaitasuna sortzeko, nanoteknologiak materialen propietate desberdinak aldatzeko duen gaitasunari buruzko informazioa kontsultatu ahal izango da nanoKOMIKen web-orrian. Hori edo egileak erabil dezakeen beste edozer informazio nanoboterea sortzeko inspirazio izango da.
- **Komikia nola sortu:** webgunean eskura izango dituzte komikia sortzeko oinarrizko pausoak.

PARTEHARTZAILEAK

Erronkak bi kategoria izango ditu:

- **A kategoria:** 14 eta 18 urte bitarteko gazteak, zehazki, 1999 eta 2003 urte artean jaiotakoak. Taldeka nahiz banaka hartu daiteke parte.
- **B kategoria:** 18 urtetik gorako pertsonak, zehazki, 1999 urtea baina lehenago jaiotakoak. Kategoria honetan banaka nahiz egilekide taldean parte hartu ahal izango da.

Bi kategorietan:

- Herrialde guztietako pertsonak parte hartu ahal izango dute erronkan.
- Euskarazko, gaztelaniazko, frantsesezko eta ingelesezko lanak onartuko dira.
- Parte-hartzaile bakoitzak bi lan aurkeztu ahal izango ditu gehienez.

KOMIKIAREN AURKEZPENA

Pertsonaiak eta gidoiak originalak izan beharko dute. Teknika eta estiloa libreak izango dira; lanak txuri beltzean nahiz koloretan aurkeztu ahal izango dira, eskuz eginak bere osotasunean edo ordenagailuz sortuak edo ukituak. Komikiak argitaragabea izan beharko du, eta beste lehiaketa batzuetan saritu gabea.



GOBIERNO
DE ESPAÑA


MINISTERIO
DE ECONOMÍA, INDUSTRIA
Y COMPETITIVIDAD

FECYT



FUNDACIÓN ESPAÑOLA
PARA LA CIENCIA
Y LA TECNOLOGÍA





Tamaina eta erresoluzioa

Komiki istorioa DIN-Aren proportzioetara egokituko da, gehienez A3 eta gutxienez A4 tamainan.

Lanak **digitalizatuta** aurkeztuko dira 300 ppp erresoluzioarekin.

Luzera

- **A kategorian** luzera minimoa orri batekoa eta gehienekoa bi orrialdetakoa izango da.
- **B kategorian** luzera minimoa bi orrialdetakoa eta gehienekoa lau orrialdetakoa izango da.

AURKEZTEKO EPEA

Erronkan izen-emate epea irekita egongo da 2017ko **apirilaren 1etik ekainaren 11era** bitartean. Epez kanpo jasotako lanak baztertuak izango dira.

LANEN BIDALKETA

Lanak **zuzenean** webgunean aurkeztu beharko dira **apirilaren 1etik ekainaren 11era** bitartean.

Izen-emate epea amaitu ondoren, aurkeztutako komiki lan guztiak webgunean egongo dira ikusgai.

SARIAK

Aurkeztutako lanak hainbat saritarako hautagai izango dira, kategoriaren arabera.

- **A kategoria**
 - **Lehen saria:** 250 eurotan zenbatetsia.
 - **Bigarren saria:** 150 eurotan zenbatetsia.
- **B kategoria**
 - **Lehen saria:** 500 euro.
 - **Bigarren saria:** 300 euro.
 - **NanoKOMIK proiektuaren azken komikia egitea:** nanoKOMIK proiektuaren antolatzaileek B kategoriako irabazleari nanoKOMIK 2017ko azken komikia egiteko aukera emango diote. Bi aldeak lan hori egiteko berariazko baldintzetan ados jarri gero (ordainsaria, epeak, lizentziak eta abar), B kategoriako komiki irabazlearen egileak bere lana lau hizkuntzatan argitaratuta ikusiko du, 1.000 aleko tirada batekin euskaraz eta gaztelaniaz.
- **Publikoaren saria:** 100 euro

Lan guztiek, bai **A kategoriakoek** bai **B kategoriakoek**, izango dute sari hori jasotzeko aukera. Publikoak erabakiko du sari hori, web-orrian horretarako zabalduko den atal baten bidez botua emanaz.


Epaimahaiak edozein sari eman gabe utzi ahal izango du, publikoaren saria izan ezik.



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE ECONOMÍA, INDUSTRIA
Y COMPETITIVIDAD





EPAIMAHAIA

Batzorde antolatzailea proiektuaren arduradunek osatuko dute, eta epaimahaiko kideak izendatu beharko ditu. Epaimahaia bost pertsonak osatuko dute. NanoKOMIK 2017 erronkako bi kategorietan jasotako lan-kopuruaren arabera, batzorde antolatzaileak bi epaimahai independente ezartzea erabaki ahal izango du.

Epaimahai horrek edo horiek, lehen bileran, parte hartzen duten lanak puntuatzeko eta baloratzeko berariazko irizpideak ezarriko ditu/dituzte. Epaimahaiak istorio grafikoa sortzean izandako irudimenean eta originaltasunean oinarrituko du bere balorazioa, ez marrazkiaren bikaintasunean bakarrik.

KONTAKTUA

Edozein zalantza argitzeko, jarri harremanetan antolakuntzarekin hurrengo helbidean:

info@nanokomik.com

Amaia Arregi

DIPC

Tel. 943015893

Itziar Otegui

CIC nanoGUNE


Tel. 943574024



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE ECONOMÍA, INDUSTRIA
Y COMPETITIVIDAD





Lege-baldintzak

DIPC eta CIC nanoGUNE ez dira materiala bidaltzean, birusak edo bestelako arazoak direla eta, sor daitezkeen arazoan erantzule.

Oinarri hauek onartzea nahitaezkoa da erronkan parte hartzeko, eta, beraz, sariak irabazi ahal izateko. Partaideren batek oinarrietan ezarritako baldintzak ez baditu betetzen, erronkatik kanpo geldituko da, automatikoki.

Komiki lanak ezingo dira, inolaz ere, beste hizkuntza batean beste egile batzuek garatutako obren itzulpen hutsak edo lan eratorriak izan. Edozein kasutan, hirugarren baten parte-hartzea onartuko da komiki lanaren itzulpenean, erronkan onartutako hizkuntzetako batera itzultzeko.

Egile-eskubideak

Erronkara hirugarrenen jabetza intelektualaren edo industrialaren eskubideak urratzen dituen materialik ez dutela aurkeztuko bermatu behar dute partaideek. Horrenbestez, partaideek auzi horretatik kanpo utzi behar dituzte CIC nanoGUNE eta DIPC. Hortaz, partaideek hirugarrenen eskubideei buruzko arauak ez badituzte betetzen edo arau-hausteren bat egiten badute, CIC nanoGUNE eta DIPC ez dira horren erantzule egingo. Erronkako parte-hartzaileari dagokio CIC nanoGUNE eta DIPC ardura horretatik salbuestea.

Erronkako partaideek CIC nanoGUNE eta DIPCri utziko dizkiote aurkeztutako komikiak ustiatzeko eskubidea komikia erabili, zabaldu, banatu, eman, publikoki komunikatu eta Internet edo bestelako ikus-entzunezko baliabideen bidez dibulgatu, erreproduzitu eta erakusteko eskubideak barne. Halaber, CIC nanoGUNE eta DIPCk komikia eraldatu ahal izango dute, muntaia laburragoak egiteko edo beste komiki batzuekin batera editatzeko. Lagapen hori dohainik eta modu ez esklusiboan egingo da, mundu osorako.

Hautatutako eta jasotako lanak sustapenerako eta/edo hedapenerako erabiltzeko eskubidea dute antolatzaileek. Komikiak atal honetan zerrendatu ez diren xedeetarako erabiltzeko, egilearen baimena beharko da.

Ez dira onartuko aurrez sarituak izan diren lanak. Era berean, komikiek ezingo dute pertsona fisiko edo juridikoen jabetzara, osotasuna edo irudi ona kaltetu.

Aurkeztutako komikiak ustiatzeko eskubidea lagatzeagatik, CIC nanoGUNE eta DIPC-k eskubidea dute komikiak Internet edo bestelako ikus-entzunezko baliabide edo erakusketa baten bidez zabaltzeko edo argitaratzeko, baina ez daude horretara behartuak.

Erronka amaitu ondoren, erakundeak egoki deritzen komikiak eskuragarri egongo dira www.nanokomik.com helbidean eta nanokomik proiektuaren sare sozialetan, CIC nanoGUNE eta DIPCren zientziaren dibulgaziorako web-orrietan, antolatzaileek egoki deritzoten arte.

Azken klausulak

Erronkan parte hartzeko ezinbestekoa da klausula hauek onartzea. Oinarrietan jasotzen ez diren gaiak dagokienez, CIC nanoGUNE eta DIPCk izango dute erabakitzeko eskubidea.

Antolatzaileak ez dira arazo teknikoak direla eta ikus ezin daitezkeen komikien erantzule izango. Epaimahaikideek ezingo dute lehiaketan parte hartu.

CIC nanoGUNE eta DIPC ez dira egingo beren kontrolpetik kanpo dauden, edo sareko operadore, zerbitzu-emaile bitartekari edo hirugarrenek sortutako jazoera hauen erantzule: galerak edo atzerapenak, etenaldiak, funtzionamenduaren eskuragarritasun edo jarraitutasun eza, transmisio-arazoak, informazioaren galera, iruzurra, sareko akatsak, softwarearen funtzionamendu-arazoak, sarrera-, komunikazio- edo erantzun-akatsak, lehiaketaren aldaketak eta abar.

CIC nanoGUNE eta DIPCk eskubidea izango dute dokumentu ofizialen bidez (NAN, gidabaimena eta abar) lehiaketako partaideen nortasunari buruzko egiaztapenak egiteko.

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera, parte-hartzaileei jakinarazten zaie beren datu pertsonalak Donostia International Physics Centerren (DIPC) eta CIC nanoGUNEren bi fitxategitan jasota geratuko direla. Fitxategi horien helburua DIPCk, CIC nanoGUNEk eta/edo beste entitate kolaboratzaile batzuek antolatutako dibulgazio zientifikoko ekitaldiak zabaltzea eta kudeatzea da. Legeak jasotzen duen bezala, eskubidea duzu zure datuetara sartzeko, horiek aldatzeko eta ezeztatzeko eta horien aurka egiteko.

- Horretarako, idatzi DIPCera, dela posta arruntez (Manuel Lardizabal ibilbidea 4, 20018 Donostia, Gipuzkoa) dela posta elektronikoz (outreach@dipc.org).
- Edo CIC nanoGUNEra, dela posta arruntez (Tolosa hiribidea 76, 20018 Donostia, Gipuzkoa) dela posta elektronikoz (com@nanogune.eu).



GOBIERNO DE ESPAÑA

MINISTERIO DE ECONOMÍA, INDUSTRIA Y COMPETITIVIDAD

